



Kaixo:

jubenilen Tadekako Gipuzkoako Txapelketari buruzko xehetasun batzuk:

1. Taldeak:

<u>A TALDEA</u>	<u>B TALDEA</u>	<u>C TALDEA</u>
Carballo, Telmo	Agirrezabala, Denis	Arrizabalaga, Lukas
Goitia, Ibai	Corts, Izan	Davis, Ian
Martin, Joel	Eguzkitza, Abel	Lazkanoiturburu, Beñat
Retegi, Aritz	Garikano, Aritz	Ostolaza, Urko
Zarate, Martin	Isasti, Lander	Rekondo, Aner

2. Jokamoldeak: taldekideen artean erabakiko dute zeinek zein jokamoldetan jokatu. Partiden ordena ondorengoa izango da: Gomazko paleta, larruzko paleta buruz buru eta larruzko paleta binaka.

3. Ordezkoak: pilotariren batek ezin badu norgehiagoka batera azaldu, ahal bezain pronto jakinarazi beharko dio federazioari, zein jokamoldetan jokatu behar zuen jakinaraztearekin batera. Federazioak ordezkoa izateko izena eman duen pilotaria konbokatuko du. Honek ere jokatu ezingo balu, talde horrek jokamolde horretako partida zeron galduko luke eta beste bi partidak jokatu beharko lituzke.

4. Materiala, tanteoak eta sakeen distantziak:

JOKAMOLDEA	MATERIALA *	TANTEOA	SAKEA		
			PUNPA	FALTA	PASA
GOMAZKO PALETA	Euskalduna arina	25	21 m.	14 m.	24,5 m.
LARRUZKO PALETA BURUZ BURU	Zulaika kadetea	20	31,5 m.	14 m.	24,5 m.
LARRUZKO PALETA BINAKA	Zulaika kadetea	35	31,5 m.	14 m.	24,5 m.

(*) federazioak jarriko du



5. Norgehiagoketako irabazleak: norgehiagoka bakoitzeko talde garailea hiru jokamoldeen batuketan tanto gehien lortzen dituen izango da. Berdinketarik balego, partida gehien irabazi dituen taldea izango da. Talde garaileak bi puntu eskuratuko ditu eta galtzaileak bat.

6. Egutegia: erantsita.

7. Finala: ekainaren 8an, larunbata, jokatuko da, goizez, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan, Herriarteko Txapelketako finalaren aurretik.

Besterik gabe, agur eta ondo izan.

2024ko maiatzak 7
Iñaki Peluaga
Lehiaketa arduraduna